

## Sare inteligenteen mintegia

2012/12/20

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak mintegi bat antolatu du gaur, asteazkena, abenduak 19, Energiaren Clusterraren laguntzarekin.

Mintegiaren helburua da sare adimendun edo "SmartGrid-en" inguruko kontzeptu orokorrak, sare elektrikoan aurreikusitako eboluzioa eta aldaketak eta horien garapena bultzatzen duten teknologia nagusiak azaltzea.

Argindarra banatzeko sareek helburu horiek lortzeko ahalmen handia dute, sare adimendun edo SmartGrid-en garapenari esker. Sare horiek erraztu egiten dute banatutako sorkuntza eta mikrosorkuntza –energia berriztagarrien sorkuntza barne hartuta– eskariarekin integratzea. Horri esker, hobeto kontrolatu ahal izango dira muturreko kargak eta energia-eraginkortasuneko programak. Gainera, eskariaren kudeaketa lagungarri izango da erabiltzaileak kontzientzia hartzeko, etxeko faktura elektrikoa murrizteko aukera emango baitio.

Mintegian parte hartu dutenek bertatik bertara ikasi ahal izan dituzte sare adimendunen inguruko kontzeptu orokorrak, egungo egoera, esku hartzen duten teknologiak, sare horiek hedatzeko egungo kasu errealak eta tartean diren eragile nagusiak.

### Lau aditu bakoitzak bere ponentziak azaldu dituzte:

Sevillako Unibertsitateko Antonio Gómez Expósito izan da lehen parte-hartzailea, "SmartGrids, So old, So new" izeneko hitzaldiaren bidez. Hitzaldi horretan, azken hamarkadetakako hobekuntza teknologikoak berrikusi ditu, gaur egun proposatzen diren hobekuntzak testuinguruan kokatzeko.

Sare "adimentsu" berri horiei esker, azken kontsumitzailearen eta konpainia elektrikoaren arteko bi noranzkotako komunikazioa gauza daiteke, eta, horri esker, sarea eraginkortasun handiagoz kudeatu eta bezeroei zerbitzu osagarriak eskaini ahal zaizkie. Iberdrolako Alberto Sendín Escalonak "Sare Elektriko Adimentsua hedatzeko Sareak eta Sistemak" izeneko txostena azaldu du. Bertan, sare elektriko adimentsua hedatzeko informazio-teknologiak nola erabili behar diren argitu du.

Euskadin SmartGridak ezartzeko lehen urratsak ematen ari dira dagoeneko, "Bidelek Sareak" proiektuaren bidez. Proiektu hori Eusko Jaurlaritzak eta Iberdrolak abiatu dute, Bilboko eta Portugaleteko hirigunean sare adimendunak ezarri eta elektrizitate-hornikuntza eraginkorragoa eta ziurragoa lortzeko asmoz. Gero, esperientzia hori EAEko beste eremu batzuetara hedatzeko asmoa dago. Lehen hiru urteetan, 60.000.000 € inbertitzea aurreikusi da, eta uste da kualifikazio handiko 300 lanpostu inguru sortuko direla.

Sare adimendun horien beste alderdi garrantzitsu bat hauxe da: energia berriztagarriak eransten lagundu, eta elektrizitatea era masiboan txertatu behar dutela, sare elektrikoaren gaitasuna ahalik eta erarik eraginkorrenean kudeatzeko. Gas Natural Unión Fenosako David Trebolle Trebollek "Banaketa-sareen kudeaketa aktiboa" gaia izan du mintzagai.

Amaitzeko, Energiaren Euskal Erakundeko Txaber Lezamiz Condek Euskadira ekarri du hizlariak azaldutako ikuspegia, hemen energiak bizi duen egoerara hain zuzen. Sare adimendunak Euskadiko 2020 Energia Estrategiaren (3E2020aren) baitan kokatu ditu, eta euskal enpresek estrategia horren barruan izango duten zeregina azaldu.

Euskadiko 2020 Energia Estrategiak (3E2020ak) helburu argiak ditu. Lehen mailako energia-kontsumoan 2008ko maximo historikoa ez gainditzea, 2020an. Horretarako, energia-eraginkortasunaren aldeko ekintzak sendotu egingo ditu sektore guztietan. 2020an petrolioaren



Smart Grid mintegia

azken kontsumoa 2010ekoarekiko % 9 murriztea. Nola? Garraioaren sektorearekiko atxikipena, ibilgailu elektronikoaren erabilera —37.100 ale merkaturatuz— eta errepideko garraioan ordeztu energiak % 15 izatea bultzatuz. Energia berriztagarrien aprobetxamendua % 87 handitzea, 2020an 905.000 petrolio-tona baliokidera iristeko: alegia, berriztagarrietako kuota % 14koa izateko, azken kontsumoan. Eta sorkuntza elektrikoan, kogenerazioaren eta berriztagarrien partaidetza areagotzea, 2010eko % 18tik 2020ko % 38raino.